



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

«Nafarrok ere nahi duguna izateko eskubidea dugu»

Mikel Iriarte • Libertate Nafarrako presidente eta zerrendaburua

Nafarroako Parlamentuan nafarrak bere osotasunean ordezkatzeko dituen indar politiko berria da Libertate Nafarra, Mikel Iriarte alderdiko presidente eta zerrendaburuaren arabera.

Maialen Belarra Iruñea

Erreina konkistatu aurreko Nafarroaren askatasunak eta eskubideak berreskuratu nahi ditu LN Libertate Nafarra indar politiko berriak. Izaera nafarra sustatzeko eta estatu propio independente bat izateko behetik gorako politika sistema egingo dutela baieztatu du Mikel Iriarte LNko presidente eta zerrendaburuak (Iruñea, 1979). Nafarroako presidente izateko hautagai izango da heldu den maiatzeko hauteskundeetan.

Nola ateratzen alderdi berri bat sortzeko beharra?

Gu nafarrak gara, soilik nafarrak, izen-abizenik gabe. Horrekin lotuta, ez genuen parlamentuan abertzaletasun nafarrak ikusten, areago, nafar izaera ukatu egin digute, eta horregatik sortu dugu indar politiko berri hau. Ez dugu uste inork ordezkatzeko gaituenik, eta horren beharra genukan.

Nafarroa Nafarroarentzat lanean, beraz.

Bai. Dena den, gutako asko euskal herritar sentitzen gara, euskara gure hizkuntza den heinean, baina nafar guztiak ez dira euskaldun sentitzen; bai, ordea, nafarrak. Guk ez dugu ezer baztertu nahi, eta uste dugu nafar sentimenduaren barruan denok sartzen garela. Ezbairik gabe, indar politiko hau irekia eta multikulturala izango da, eta halakoxea izango da guk aldarrikatzen dugun abertzaletasun ere.

Nola definituko zenuke zuen alderdia?

Indar politiko irekia eta berria da, orain arte daudenetatik erabat ezberdina. Guk subjektu politiko burujabe bat nahi dugu, eta, gure ustez, hori gizarte nafarra da. Besteak ez dira batera finkoak, beti daude gauzak nola hala nahasten, eta guk argi dugu zein den gure subjektu politikoa.

Zein dira zuen helburuak?

LN gizartearentzako tresna bat izatea nahi dugu, herritarrak batzarretan, udaletan, merindadetan eta abar antola daitezten. Betera, gure eskubideak eta libertateak, hau da, foruak berreskuratzea. Ez dugu betiko alderdiak bezalakoak izan nahi: herri batzarrek sustatu nahi ditugu, gure bizitzako kontu arruntak kudeatzeko. Hortik parlamenturaino iritsiko gara, baina beti behetik gorako norabide batean.

Zein dira aurkeztu duzun programaren puntu nagusiak?

Gure eskubideak eta libertateak berreskuratzea, nafar estatuari duintasuna itzultzea eta herritarrei erabakitzeko eskubidea praktikan jartzeko aukera ematea.

Baina erabakitzeko eskubidea urratzen ari dira.

Gure eskubideen artean erabakitzeko ere badago, baina argi dago

zuen dugu horrekin ere. Ez dugu bat egiten jorratzen ari diren politikarekin, guztiak goitik behera funtzionatzen duelako eta guk alderantzizko bidea aldarrikatzen dugulako. Ukatu egin digute nafar sentimendua, eta baita guk ulertzen dugun politika sistema ere. Hori ezin dugu onartu.

Zein da euskararen lekua zuen proiektuan?

Euskara beste eskubide linguistiko bat da, eta guk eskubide guztiak bermatu nahi ditugu. Euskara gure hizkuntza da, baina ez bakarra, eta guztiak zaindu behar ditugu. Ukaezina da euskarak hegoaldean arnagune gutxi dituela, eta, adibidez, ezin diogu Cintruénigoko bati euskaraz egitera behartu. Horregatik esaten dugu indar politiko irekia garela eta kultura guztiak onartzen ditugula. Euskararen oraingo egoera ere konkista baten ondorio zuzena da. Estatu propio batek bermatuko luke euskara, beste eskubide guztiarekin batera; hori dela eta egiten dugu gure estatu burujabe baten alde. Euskararen legea aldatzearen alde gaude, euskaraz ikasi nahi duen orok horretarako eskubidea izan dezan.

LNren zeregina Nafarroara bidertatu arren, inguruko komunitateekiko nolako harremana bul-tzatuko duzue?

Guk sinesten dugu Nafarroa zazpi probintziak baino handiagoa dela eta zazpi horiek inposatuak direla. Lurralde historikoak hor daude, eta kontuan hartzen ditugu, baina horrek ez du esan nahi lurralde historiko horiek Nafarroaren zati izatera behartuko ditugunik. Libre eta demokratikoki erabakitzen badute Nafarroara itzultzea, ongi etorriak izango dira, baina ez alderantziz.

Zein mezu helaraziko zenieke nafarrei?

Argi izatea nahi dugu nafarrok ere nahi duguna izateko eskubidea dugula, eta behin izan ginena izaten saiatuko garela, hau da, estatu propio eta independente bat.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística